

# BERRIGARA


45. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1996, irailak 6

Abuztu  
euritsua

Oporretatik  
bueltan



**ALDASORO** zapatadenda

Aprobetxa itzazu gure PREZIOAK.

Aurten 7. urtea betetzen dugu BERGARAKO ESPALOIAN.

*Oinetakoak, poltsak eta larruzko jantziak*

# ANIMA ZAITEZ



Zabalotegi, 13  
BERGARA  
☎ 76 44 53

Oso garrantzitsua da euskararentzat zu ere gure hizkuntzaren uretan murgiltzea, dagoeneko askok eta askok egin dugun bezala. Ikasturte honetan Udal Euskaltegiok aukera hori eskaintzen dizugu. Anima zaitez, zatoz, gurekin gozatu egingo duzu eta.

## 96-97rako EUSKARA IKASTAROAK

**Maila guztiak:** EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA

### Erritmoak

Egunero 2 ordu  
Egunero 3 ordu  
Egunero 5 ordu

### Iraupena

Iraila-Ekaina  
Iraila-Ekaina  
Iraila-Otsaila  
Otsaila-Ekaina

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu. Galde ezazu.

### MATRIKULALDIA

Irailaren 2tik 18ra arte

### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08:30-12:30 Arratsaldez: 14:30-19:00

16 urtez gorakoentzat

BERGARAKO JAUREGIA  
 4870 Bergara  
 945 03 97 • Faxa: 76 08 19

**Argitaratzailea:**  
 BERGARA Elkartea.  
**Zuzendaria:**  
 Berardo Azkarate  
**Redakzioa:**  
 Berardo Mendibil  
 Angel Elkoroberezibar  
 Iñaki Larrañaga  
**Katuzkoak:**  
 Berardo Azkarate  
**Argitalaritza:**  
 Berardo Azkarate  
**Argitaleriaz:**  
 Berardo Elortza  
**Argitaleriaz zuzenketak:**  
 Berardo Plazaola  
 Berardo Laskurain  
 Berardo Labaien  
**Redakzio kontseilua:**  
 Berardo Elortza  
 Angel Elkoroberezibar  
 Berardo Labaien  
**Argitaleriaz:**  
 Berardo Rodriguez  
 Berardo Ortega & Jon Alvarez  
 Berardo Ugaldede  
 Berardo Azkarate  
**Argitaleriaz:**  
 Berardo Angorri taldea  
**Argitaleriaz:**  
 Berardo ale.  
**Argitaleriaz:**  
 Berardo Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)  
**Argitaleriaz:**  
 BERRIGARA  
**Argitaleriaz:**  
 Berardo gordailua:  
 Berardo 30191  
**Argitaleriaz:**  
 Berardo 6599

BERRIGARAK ez du bere gain  
 argitaratzearen ardura adierazitako  
 argitaratzearen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako  
 Argitaratzearen laguntza jaso du



Aldizkari honek  
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
 laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko  
 Legebiltzaren Kultura  
 Argitaratzearen laguntza jaso du

**Z E B E R R I D A ?****YOSUNE LINAZISORO****Kirol Zerbitzuko zuzendaria**

- **Astelehenean igerilekuen 25. urteurrena ospatuko da...**

- Horrela da, bai. Pasa den uztailaren 31n 25 urte bete ziren barruko igerilekua zabaldu zenetik. Gipuzkoako lehen igerileku estalia omen da eta zilarrezko eztaiak ospatzeko ate irekietako jardunaldia izango da astelehenean. Bergarar guztiak (baita Kirol Zerbitzuko bazkide ez direnak ere) gonbidatuta daude goizeko 11etatik arratsaldeko 5ak arte izango diren jokoetan parte hartzeko. Piraguak, puzgariak, e.a. izango dira.

- **Barruko igerilekua berritzeko proiektu?**

- Osakidetzaren neurri guztiak ez ditu betetzen barruko igerilekuak eta berritzu beharra dago.



Aurten erabakiko da zer egin eta noiz, baina hori politikoen esku dago. Dirulaguntzen arabera erabakiko da zer egin.

- **Noiz itxiko dira kanpoko igerilekuak?**

- Eguraldiaren arabera. Baliteke San Martinak arte zabalik egotea. Baina irailaren 17an barrukoak zabalduko dira, goizeko 8etatik gaueko 9ak arte.

**"Igerilekuaren 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egingo dira astelehenean"**

**I T U R R I O N E T I K****Jam diskoteka urriko lehen asteen zabalduko da**

Amillagan egiten ari den Jam diskoteka urriaren hasieran zabalduko da ziurrenik. Bertako jabeek San Martinetarako zabaltzeko asmoa izan arren, azkenean lanak zertxobait atzeratu egin dira eta urriko lehendabiziko asteen zabalduko da diskoteka berria. Bedelkar Bergarako dendarien elkarteak antolatutako moda desfilea izango da bertan egingo den lehen ekitaldietako bat, urriaren 12an. Aipatutako desfilean herriko 14 bat dendak hartuko dute parte. Bestalde, Jam diskotekan musika kontzertuak antolatuko dira urtean zehar.

**E S A N  
D U T E**

[Prensa lokalari buruz]

"Orain arte sekula, euskaraz irakurri ez duen jendeak lehen irakurketa bat egiten du. Ez dakit hori izan daitekeen harrobi gero beste irakurketa mota bat egiteko, baina hasiera bat da. (...) Aldizkari asko dirulaguntza publikoari esker bizi dira, eta publizitatea kontrolatzen ez bada argi dago arazoak izango dituztela. Eta nik ez dakit zenbateraino publizitatea gai izango den honelako produktuak iraunarazteko. (...) Euskarazko herri aldizkarien zabalkundea buztinezko hankadun erraldoia ez ote den izango beldur naiz. Hala ere, nire ustez badago biderik buztinezko hanka horiek indartzeko, gauza txukunak eginez... Erdibideko produktuekin ez goaz inora. Uste dut euskararen mundua bera bustinezko hankaduna dela ekonomiari dagokione".

**BEÑARDO KORTABARRIA**  
 Arrasate Press-eko zuzendaria  
 EGIN



### MISSION: IMOSIBLE

Eguakitza: 22:30.

Zapateria: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30

(Ikuslearen eguna).

▼▼ **Bertso jaialdia** antolatuta du Jardun Elkarteak datorren zapatarako, hilak 14. Bertan, Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarikano, Ainhoa Agirreazaldegia, Iñaki Murua eta Jesus Mari Irazu arituko dira bertsotan eta Joserra Gartzia izango da gai jartzailea. Sarrerak, Kortazar, Jardun eta Etxeparen erosi daitezke 800 pezetaren truke.



▼▼ **XXXI. San Martin Ziklismo Saria** jokatu da domekan 9:15etatik aurrera, lehen mailako afizionatuentzat. Lasterketa Lehendakari Sarirako puntuagarria da. Txirrindulariek 119 kilometro egin beharko dituzte eta 12:20 ingururako helmugaratuko dira Ibargaraira.

## Zinea

▼▼ 60ko hamarkadan ospea lortu zuen izen bereko telebista saioan oinarrituta, **Brian De Palma** zuzendariak eta **Tom Cruise** aktore eta produktoreak takilan izugarritzko arrakasta izan duen filmea egin dute. *Jim Phelpsek (Jon Voight)* agente sekreto talde bat bilduko du misio arriskutsu bat aurrera ateratzeko. *Hunt (Cruise)* eta *Claire (Emmanuelle Beart)* izango dira bizirik aterako diren bakarrak...

## Deiak

▼ **Odol ateraldia.** Odol emaleen elkarteak dei egiten du asteazkenean, hilak 11, 18:30etan egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

▼ **1933an jaiotako**en bazkaria irailaren 22an Antxonik jabetzekoan. Aurretik meza izango da Santa Marinaran 13:15etan. Bazkarira joan nahi dutenek Intxorta tabernan (76 22 76 telefonoa) izena eman beharko dute.

▼ **F-1 Txapelketa, "San Marino".** Lam-ek bideo-makina joku txapelketa antolatuko du datorren ostegunean 20:00etan Ziripot tabernan. F-1 bideo-makinan "San Marino" pistan lehen 16 denbora onenak lortu dituztenak parte hartu ahal izango dute. Bi sari banatuko dira: lehenengoa, Metalica ikusteko bi sarrera eta bigarrena, sarrera bat.

## Ogia

▼ **Igandea 8:** Bolintxo

## FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 6:** Camacho.
- ▼ **Zapateria 7:** Puy.
- ▼ **Domeka 8:** Puy.
- ▼ **Astelehena 9:** Guallar.
- ▼ **Martitzena 10:** Camacho.
- ▼ **Eguaztena 11:** Puy.
- ▼ **Eguena 12:** Camacho.



# ETXE BERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

# ANTIA

## HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09

# Herriko artisten lanak

## 13 pintoreren margoak Nahikarin ikusgai

**Bergarako** hainbat margolariren lanak ikus daitezke egunotan atzo berrirekitze ekitaldi ofiziala egin zuen Nahikari tabernan, Masterrekan. Bittor Poza tabernako arduradunak herriko artisten lanak aukeratu ditu etapa berri honen hasierarako. Bere hitzetan, *"lehen bezala, batez ere berrago artisten lanak ezagutzera emateko asmoa daukagu eta horregatik lehendabiziko erakusketa honetarako lehen ere tabernan euren lanak erakutsi dituzten herriko zenbait artistak kolaboratu dute"*.



Nahikari taberna arte erakustoki bilakatu zaigu.

Irailaren amaiera bitartean Josuren Murgizu, Carlos Galarraga, Jon Andoni Urisabel, Dani Lascurain, Abdon Juaristi, Pello Alberdi, Antxon Arrillaga, Ricardo Azkargorta, Bingen De Pedro, Javi Ugalde, Joxan Iza, Usoa Mendikute eta Juan Jose Altunaren margoak izango dira ikusgai. Margolari bakoitzak lan bat aukeratu du erakusketa

honetarako eta batez ere paisaiak eta koadro abstraktoak dira nagusi. Nahikariko da egunotan Bergaran ikus daitekeen erakusketa bakarra.

Esan bezala Bittor Poza tabernako jabeak artista ezberdinak bultzatzeko asmoa dauka eta bere lanen erakusketa egiteko interesa duen edonor berarekin jarri daiteke ha-

rremanetan, tabernara hurbilduz edo 76 57 71 telefonora deituz. Azken urteetan makina bat erakusketa antolatu da Nahikarin eta herriko artistez gain, inguruko herrieta-koak edo atzeritarrek ere beren lana ezagutzera emateko aukera izan dute.

### Panero hizlari

Leopoldo Maria Panero olerkari madrildarra hizlari izango da Nahikari tabernan gaur, ostirala, 20:30etan. Leopoldo Maria Panero Arrasateko

Santa Ageda Ospitalean ingresaturik dago eta azkenaldian hainbat komunikabiderekin kolaboratu du. Era berean, bera eta bere familiaren inguruko gorabeherak "El desencanto" (Jaime Chavarri) eta "Despues de tantos años" (Ricardo Franco) filmeetan azaltzen dira. Gaurko emanaldian publikatu gabeko hainbat olerki aurkeztuko ditu "Poemas de la vieja" izenburupean. Panerok homosexualitatea, politika eta beste zenbait gai jorratuko ditu Nahikarin.

**Leopoldo Maria Panerok poesia errezitaldia eskainiko du ostiralean Nahikarin**

**KONDE**



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

**Goierri**

**AUTOGIDARIEN ESKOLA**

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

## Abuztu biziak

Uda Bergaran igarotzea tokatu zait aurten eta egia esan gauza gutxi izan da abuztuan gure herrian. Nahiz eta jende dexente geratu aurten, herriko kaleetan egunez zedozer baina gauzez giro gutxi zegoen. Askotan lagunekin kostaldeko jaietara irten behar izan dut, Bergaran ez geratzearren... Egia esan, herriatik irtetzera behartuta geunden hemen ez zegoelako ezer, ez egunez ezta gauzez ere. Beste herri batzuetan zinea aire librean edo beste ideia batzuk asmatzen dituzte, baina Bergaran zer? Udan kanpoko igerilekua bakarrik eta aurten egin duen eguraldi kaskarrarekin ba imajinatu dezakezue nolako panorama!!

Ez dakit noren esku egon beharko litzatekeen udan herria zertxobait bizitzeko ardura. Udalak, herriko komertziantek eta kultur taldeek elkarrekin lan egirik jende gazte eta helduari zuzendutako ekitaldiak antolatu ditzakete nire ustez. Horrela ez litzauguke hain asperrria egingo oporraldia. Gero eta jende gehiago geratzen da abuztuan Bergaran eta hori kontutan izanik, uste dut jendearen parte hartzea lortzea ez litzatekeela hain zaila izango. Ea datorren urtean abuztu biziagoa izaten dugun!!

M. ELGARRESTA

## Belar artifiziala

Orain hurrengoan Aretxabaletako UDA futbol elkartearen 75. urteurrena ospatzeko Realak eta Alavesek jokatu zuten partidua telebistatik ikusteko aukera izan nuen. Partidua ez zen beste munduko ezer izan, aurrendenboraldiko aspergarri horietakoa...

Baina nire asmoa ez da aurrendenboraldiko futbol partiduez hitz egitea, horri buruz berba ugari entzun izan baitugu abuztuan zehar. Normala, bestalde, telebistan ia futbola besterik ez baidigute eskaini. Gutun hau UDAk estreinatu berri duen futbol zelaiari buruz jarduteko idatzi dut. Benetan polita laga dute Aretxabaletako Ibarra futbol zelai berria, tribuna dotore eta moderno eta guzti.

Lehenengo futbol zelaia alde batera laga eta belar artifizialezko beste bat erai ki dute. Uste dut horrelako futbol zelaietan dagoela etorkizuna. Are gehiago, kontutan izanik, Euskal Herrian negu partean euri asko egiten duela eta belarrezko zelaiak egoera onean mantentzea oso zaila izaten dela.

Agorrosingo belarrezko futbol zelaia lujo bat da bergararrentzat. Normalean BKEko lehendabiziko futbol taldeak bakarrik erabiltzen du eta entrenatzeko ez da apenas erabiltzen. Zergatik? gehiegi erabiliz gero, hondatu egiten delako. Beraz, hamabostean behin erabiltzera

mugatu beharra dago. BKEk zortzi bat futbol talde ditu eta Agorrosin erabili ezin daitekeenez Ipintzan entrenatu eta jokatzen dute gehienek. Talde gehiegi zelai bakarrarentzat. Bestalde, Agorrosin behar den bezala mantentzeak kostu handia suposatzen du.

Aretxabaletan ezezik Elgoibarren ere badute belar artifizialezko futbol zelaia eta Gipuzkoako beste hainbat herritan ere badituzte. Bertan jokatzeo aukera izan dutenek gozada bat dela aitortu dute. Elgoibarko futbol zelaietan talde federatuek jokatzen ez dutenean alkilatut egiten dute edozeinek erabili dezan.

BKEko arduradunek eta Udaleko kirol sailekoek soluzioren bat topatu beharko lukete. Agorrosinen jabea BKE da, baina Udalak lagundu beharko luke Agorrosinen belar artifizialezko zelaia egiteko. Honela, Ipintza eta Agorrosin, biak, erabiliko litzukete BKEko talde guztiek, bai entrenatzeko eta baita partidu ofizialak jokatzeo. Eta ez hori bakarrik, federatuta ez dagoen edozein herritarrek ere erabiliko litzuke. Inbertsiorik errentagarriagoa ez dagoela uste dut.

Udalak kirol instalazioetan ez du diru askorik gastatu azkenaldian. Ordu da!!

A. EGUREN

## Tiira biraka



**HILDAKOAK**

- Francisco Muruamendi** Albedi  
Uztailak 19, 90 urte
- Felsa Larrañaga Maortua**  
Uztailak 23, 72 urte
- Maria Isabel Okina Salsamendi**  
Uztailak 26, 68 urte
- Paula Agirre Kortazar**  
Uztailak 26, 85 urte
- Nieves Armentia Elguea**  
Uztailak 27, 58 urte
- Miguel Zabaleta Arrizabalaga**  
Abuztuak 1, 85 urte
- Dolores Martin Davila**  
Abuztuak 2, 79 urte
- Teresa Larrañaga Baztarrika**  
Abuztuak 3, 82 urte
- Tomas Astaburuaga Arberas**  
Abuztuak 7, 55 urte
- Juan Jose Markiegi Laskurain**  
Abuztuak 15, 85 urte
- Jose Ramon Lete Garaikoetxea**  
Abuztuak 16, 35 urte
- Francisca Regil Agirre**  
Abuztuak 21, 91 urte
- Maria Aretxaga Garaita**  
Abuztuak 25, 91 urte
- Maria Macias Rosado**  
Abuztuak 26, 71 urte
- Satumino Sarrau Albedi**  
Abuztuak 28, 68 urte
- Mateo Arrue Jaca**  
Abuztuak 31, 72
- Juan Jauregi Mujika**  
Abuztuak 31, 77 urte

**JAIOTAKOAK**

- Tania Fernandes Costa.** Uztailak 8
- Jokin Abio Abreu.** Uztailak 21
- Xabier Umerez Caamaño.** Uztailak 26
- Aitor Beristain Salaberria.** Uztailak 26
- Andrea Baladron Etxebarria.** 7
- Alazne Basterra De Santos.** 10
- Julen Juaristi Berasategi.** Abuztuak 12
- Ane Eraña Arbulu.** Abuztuak 12
- Unai Albedi Azula.** Abuztuak 14
- Irene Odriozola Fornell.** Abuztuak 16
- Joanes Plazaola Madinabeitia.** 18
- Ion Goltia Gorritxo.** Abuztuak 24
- Xabier Jauregi Agirre.** Abuztuak 28
- Ane Jauregi Agirre.** Abuztuak 28
- Jokin Arietaleaniz Coranti.** Abuztuak 30



Zapatu eta domeka goizean apurtuta agertu ziren hilarriak.

# 17 hilarri puskatuta agertu dira Osintxuko kanposantuan

Osintxuko kanposantuko 17 hilarri apurtuta agertu ziren zapatu goizean. Lazpiur lantegian ere 40 bat kristal apurtu zituzten zapatu goizaldean. Antza denez, sagarrak erabili omen zituzten kristalak apurtzeko. Era berean, Ion Citroen garajeen ere bigarren eskuko hiru kotxetako kristalak apurtu eta irati aparailuak apurtu zituzten. Domeka goizaldean ere beste hainbat hilarri apurtu zituzten Osintxun. Auzokideek uste dute triskantzak guztiak egile berdinek direla.

**"Espelikaziorik gabeko eraso"**

Auzotar ugari hurbildu zen zapatu eta domekan kanposantura eta amorrua eta pena nagusi zen egin diren txikizio hauen aurrean. Osintxuko kanposantuan 80 bat hilarri daude eta guztira 17 izan dira apurtutakoak. Osintxuarrek ez zuten ulertzen hildakoen oroimenaren kontrako eraso hau. Hilarriek zeukaten balio sentimentalaz gain, eraso jaietan izateak sutan jarri ditu osintxuarrek. Orain euren poltsikotik

hilarri berriak jarri behar dituzte. Iosu Agirrezabal Osintxuko auzo alkatuek adierazi digunez, *"gertatutakoak ez dauka espelikazio lojikorik eta hori egiten duena ez da burutik oso sano egon behar. Ikusi besterik ez dago parean tokatu zaien guztia apurtu dutela eta ezin da ulertu"*.

Ertzainek gertatutakoa ikertzeko dilijentziak hasi dituzte baina euren hitzetan, *"oso zaila da hone-lako eraso baten egileak nortzuk izan diren jakitea baina abal den guztia egingo dugu"*.

**Zure konfidantzako denda**



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

**ARRASATE**

## HBren manifestazioa

Bergarako Herri Batasunak dei egiten du bihar larunbata, hilak 7, "Demokrazia Euskal Herriarentzat" lemapean egingo den manifestazioan parte hartzeko. Bergaratik autobusak arratsaldeko 4retan aterako dira Frontoitik. Txartelak Pol-Pol eta Arrano tabernetan daude salgai.

## San Martin ikastetxea

San Martin ikastetxeak jakin arazi duenez, 3 urtetik gorako ikasleen klaseak hilaren 9an hasiko dira, 9etatik 12.30etara. Irailaren 23tik aurrera egun osoz hasiko dira ikasleak.

## Aranzadi Ikastola

1996/97 kurtsoaren hasiera irailaren 17an egingo dute haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikasleek, goizez (hilaren 23tik aurrera egun osoz). DBHkoak 23an hasiko dira goiz eta arratsaldez, 8.45etatik 13etara eta 15etik 17etara.

BBBkoek eta UBikoek 25ean izango dute aurkezpena goizeko 11etan eta 26an klaseen hasiera, BBBkoek 8.45etatik 13etara eta 15etatik 17etara. UBikoek, berriz, 7.45etatik 14etara. Bestalde, batxilergo matrikula irailaren 11ra arte izango da zabalik. Hala ere jakin arazten da Batxilergoko 1. mailarako ez dagoela plazarik.

## Akulu AEK euskaltegia

Begarako Akulu AEK euskaltegian matrikulazio kanpaina zabalik da datorren irailaren 27ra arte. Maila eta ordutegi guztiak izango dira. EGA eta Alfabetatze eta gurasoentzat klase bereziak izango dira. Izen-ematea Masterrekan edo 76 05 18 telefonoan.



Barazki, lora, fruta eta gazten lehiaketa ikustera jende ugari hurbiltzen da plazara.

## Mexikanadak eta karaokea San Martinetako nobedadeak

### *Txekor jana prestatuko dute Bedelkarreko harakinek*

Bedelkar Bergarako dendarien elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu San Martinetarako. Datorren larunbatean, hilak 14, goizetik, barazki, fruitu, lora eta gazten lehiaketa izango da Plazan, eta goizean zehar, Bedelkarren eskutik, Bergarako odolkien dastaketa eta ferieren inguruko argazki erakusketa Plazan bertan. Era berean, egunean zehar txekorra burduntzian erreko da Seminarioan. Bedelkarreko 8 harakinek 250 Kiloko txekor bat prestatuko dute eta txekor jana (250 bat lagunentzat) arratsaldeko 8etan izango da Seminarioan bertan. Txartelak Bedelkarreko harategietan jarriko dira salgai 1.700 pezetaren truke.

Bestalde, larunbat gauetan mexi-

kar giroa izango da nagusi. Bergarako musika talde batek mexikanadak eskeiniko ditu Plazan gaueko 12.30etatik aurrera eta atsedenean karaokea izango da ausartenentzat. Herriko tabernetan ere mexikar musika jarriko dute eta mexikar estanparik onena egiten duen kuadrilari Bergarako jatetxe batean afari bat emango zaio sari gisa.

Horrez gain, San Martinetan, igandean eta astelehenean sokamuturra egongo da 8:30etan, igandean eta astelehenean nagusien eta haurren danborradaki zango dira, eta San Martin plazan bi dantzaldi izango dira, larunbatean Lisker taldearekin eta astelehenean Gaubelarekin. Bestalde, profesionalen pitota partiduak antolatuko dira.

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

**A  
R  
R  
A  
N  
O**



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA



# Azken urteotako abuzturik euritsu eta hotzena izan da aurtengoa

**Abuztuan** egin duen eguraldi kas-  
karra guztion aho-  
tan izan da. Eguzkia  
oso egun gutxitan  
ikusitako ahal izan da  
eta beraz igerileku-  
ra edo hondartzara  
joateko aukera gu-  
txi egon da, sekula  
baino gutxiago.


Beste urte batzu-  
ekin konparatuz,  
aurtengo abuztuan  
euri gehiago egin  
du. Luis Mari Agi-  
rrek eman dizkigun  
datuen arabera, 101  
litro/m<sup>2</sup> jaso dira  
aurtengo abuztuan  
Bergaran. Abuztuko  
lehen 10 egunetan  
10 litro jaso ziren,  
hilaren 10etik 20ra  
55 litro eta, azke-  
nik, abuztuaren 20-

tik 31era 36 litro.  
Euri gehien abuztu-  
aren 19an egin zuen  
(28 litro).

Azken 5 urteota-  
ko abuzturik euri-  
tsuena izan da aurtengoa,  
izan ere 1992an 84 litro,  
93an 96 litro, 94an  
35 eta iaz 56 li-  
tro/m<sup>2</sup> jaso baitzi-  
ren. Luis Mari Agi-  
rrek aipatu digunez,  
uholdeak izan ziren  
urtean, 83ko abuz-  
tuan, 336 litro/m<sup>2</sup>  
jaso ziren.

## Abuztu freskoa

Bestalde, tenpe-  
raturei dagokienez,  
Agirrerren esanetan  
ohikoak baino ten-  
peratura baxuagoak



izan ditugu abuztu-  
an. "Normalean uz-  
tail eta abuztuko  
batazbestekoa 20-  
21 gradu izaten da  
eta aurten berriz

gradu bat gutxiago  
izan dugu, hau da,  
bataz beste 19 gra-  
duko tenperatura.  
Ekainean, berriz,  
normala baino gra-

du bat gehiagoko  
temperaturak izan  
genituen: 19 gradu  
neurtu ziren nor-  
malean 17-18 gradu  
egoten direnean".

## lazko udaren pareko bisitak Turismo Bulegoan

Udal Turismo Bulegoak iazko udaren pareko bisita kopurua jaso du aurten. Guztira, 1.255 kontsulta egin dira uztailearen 8tik irailaren 2ra arte San Martin plazan zabalik izan den bulegoan: uztailean 346, abuztuan 901 eta irailean 8 kontsulta egin dira. Kontsulta gehienak Katalunia (242) eta Euskal Herriko bisitariak (250) egin dituzte. Bergarar dexente ere hurbildu da Turismo Bulegora, herritarren 230 kontsulta jaso baitira. Estatuko beste lurraldeetatik ere hainbat bisitari izan dira eta horrez gain Txekia, Finlandia edo Japoneko turista batzuk ere izan ditugu Bergaran. Guztira 38 bisita gidatu antolatuta dira eta jende gehien abuztuaren 12an etorri zen (98 bisitari). Xabier Aranburu udal museologoaren hitzetan, "Euskal Elkarte Autonomoan turismoak %10eko beherakada izan omen du eta horrek bebarbada eragina izan du Bergarara jende gehiago ez etortzeko".



▼ **JOSE RAMON LETE GARAIKOETXEA** 35 urteko mendizale osintxuerra Pirineotako Balaitus mendatean hil zen pasa den abuztuaren 16an, bihotzekoak jota. Gailurrean eman zion bihotzekoak lagun batekin zegoenean eta helikoptero frantses batek bere gorputza Panticosara eraman zuen.

▼ **BIESCASEKO KANPINEKO** trajedian hildakoen artean Begoña Azkarate Larrañaga 57 urteko antzuolarra zegoen. Abuztuaren 7an Las Nieves kanpinean ur haundiak izan zirenean ez zegoen bergararrik.

▼ **MOLOTOV KOKTEL BAT** jaurti zuten ezazagun batzuk joan zen ostegunean, goizeko 4retan Mapfre aseguru etxeak Simon Arrieta plazan duen bulegoan. Mapfreko arduradunek izandako kalteak oraindik ez dituztela baloratu adierazi diote Berrigarari. Mapfreko bulegoan lanean jarraitzen dute.

## Mikologia

# Amanita Phalloides eta gibelurdina

- Oso antzerakoak direnez, nola desberdindu daitezke "Phalloidea" eta gibelurdina?

- Gauza asko antzerakoak dituzte baina ondo fijatuz gero, badaude ezberdintasunak "Amanita Phalloide"aren eta gibelurdinaren artean. Amanitak eraztuna kertenean dauka, erdian, eta arraultzetik, bolbatik, irtetzen da eta komenigarria izaten da oso osorik hartzea hobeto ezagutzeko. Bestalde, gibelurdinaren kertena zatikorra da, klario-na bezala apurtzen da eta amahitarena, berriz, haritsuua. Kertenean ere badute beste desberdintasun bat: gibelurdinarena zuri-zuria da eta eta amanitak eraztunetik behera kolore ilunagoak ditu.

- Toki berdinetan agertzen dira ?

- Bai, antzerako tokietan irtetzen dira, orri lau-ko zuhaitzak dauden tokietan: pagoa, haritza, gaztainondoa... Sasoi honetan gainera asko irtetzen dira. Udan eta udazke-

nean batez ere aurki daitezke.

- Bergaran non jaso daitezke?

- Elosumendin amantak hartu izan ditut nik, baita Elorregi inguruan ere...

- Hain arriskutsuak dira amanitak?



**LUIS EZENARRO**  
(Pol-Poleko Mikologia Taldekoa)

- Oso arriskutsuak dira bai eta heriotza eragin dezakete, kantitate gutxirekin gainera. Gaur egun egongo dira antibiotikoak horren kontra egiteko baina oso arriskutsuak di-

ra bai.

- Amanita eta gibelurdinaren artean zalantzak izanez gero, nora jo dezakegu?

- Zalantzaren bat izanez gero dakien norbaiti kontsultatzea da onena, mikologiaz dakien edozeinek segurtasun batez argituko dizkigu zalantzak. Domekan perretxiko poltsa bat ekarri zidaten ikusteko eta denen artean amanita bat zegoen. Dena bota behar izan genuen, gainontzekoak kutsatuta egon zitezkeelako. Dena den, jendeak perretxikoak gero eta hobeto ezagutzen ditu.

- Sasoi ona oraingoa perretxikutarako...

- Bai. Euri asko egin duenez perretxiko asko irten da. Amanita ere gehiago sortu da eta horrek ere kalteak ekar ditzake. Gibelurdina ere askoz gehiago irtetzen ari da eta datorren hilabetetan ikusiko da zenbateraino irtetzen diren. Batez ere perretxikuak jateko hartzen dituen jendea ikusten da, ikasteko erabiltzen dituztenak... Gaur egun lehen baino jende gehiago ikusten da bai.

- Eta gibelurdina jasotzekotan, jateko nola gertatu daiteke?

- Asko apreziatzen den perretxikoa da eta modu desberdinetan presta daiteke: tortillan, nahaskian, labean, txapa gainean...

## "Gibelurdinaren kertena zatikorra da eta amanitarena, berriz, haritsuua"



Gibelurdina eta Phalloidea (argazkian) antzeko tokietan irtetzen dira.

*Pepelu*

**Ilepaindegia**

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07  
BERGARA



*Sugoi*

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

# Bertso Jaialdia

IRAILAK 14,  
LARUNBATA

GAUEKO 10.30etan

MARIAREN  
LAGUNDIA<sup>n</sup>

Andoni Egaña

---

Angel M. Peñagarikano

---

Ainhoa Agirreazaldeg

---

Iñaki Murua

---

Jesus Mari Irazu

---

**ANTOLATZAILEA**

**Jardun**

Gai jartzailea: Joserra Gartzia

**SARRERAK JARDUN, KORTAZAR ETA ETXEPAREN SALGAI**

Aldez aurretik: 700 pzta. / Takilan: 800 pzta.

**LAGUNTZAILEAK:** Bergarako Udala - Gipuzkoako Foru Aldundia

# Oporrak gogoan

## Bergararrak munduan zehar

**Jendeari hortik zehar zer moduz ibili den gal-detutakoan erantzuna entzutea baino gauza pozgarriagorik... Oporretan ez dago gaizki ibiltzen denik.**

**E**rantzunak beltzak, ostera, astelehenean, urteko astelehenean gogorrenean izan ziren, jendea lanera bueltatu zen egunean. Hala ere, lanean hasteak izan zuen bere alde ona, lankideei oporrak kontatzean atzera jai egunok gogoratu baikekituen. Dagoeneko datorren oporrekin pentsatzen hasita bazaude, hona hemen zenbait ideia emango dizuten bidaiak.

### Xamatz eta Aritzeta

Usoa Mendikute Xamatzeko dantzaria izan zen, orain Aritzetan dabil.



"Mexikoko mariatxiak, hondartzak, tekila... ez da benetako errealitatea". Makurtuta, Iñigo Igarza.

Abuztuan abesbatzak eta dantzariak egin duten bidaietan izan da. 82 lagun Britainian, Holandan, Belgikan eta Parisen izan dira. Bazterrak ikustez

gain, Xamatzek eta Aritzetak elkarlanean prestatutako emanaldia eskaintzeko aukera izan zuten Bruselan eta La Hayan. "Aritzetakook bizpahiru

*abesti kantatu ostean Xamatzekoek dantza egiten zuten, berriz kantu saioa, ondoren dantzak... Zenbait dantzari bitza jarri diogu, eta, esaterako, San Juan, aurraskua eta txerri dantza abestu egin genituen. Bruselakoa hobea izan zen, hiru bat orduko ekitaldia".* Istripuxo bat ere izan zuten: Alaitz Aranak, dantzan ari zela, orkatilan esginzea egin zuen. Anbulantzia etorri eta ospitalera eraman zuten. Ondorio aprobetxatutako bidaiak izan denaren eredu, ospitalean gertatutakoa: Alaitzekin egon zen medikua dantzaria izanik, kontaktoa egiteko aprobetxatu baitzuten. Helburua euskal kultura zabaltzea eta ezagutaraztea izan dute. "Dantzariak

Aritz, Ion, Asier eta Iñigo, European zehar bizikletan ibili dira. "Ezer ez genuen planifikatzen, Kopenhagera iritsi behar genuela besterik ez genekien".



obizko trajeak eraman dituzte, Aritzetakook, berriz, lehen bemen erabiltzen ziren jantziak, gure jantziak ere euskal kulturaren adierazgarri izan zitezten". Amsterdamen, Usoari gehien gustatu zaion lekuan, zeudela norbaitek esnatu egin zituen; bizikletaz iritsi ziren lau bergarar ziren.

### Helmuga Kopenhagen

Iñigo Orgaz, Jon Alberdi, Asier Elorza eta Aritz Arangurenak 2.100 kilometro egin dituzte 20 egunetan. "Parisera trennez joan, eta handik Bruselara, Amsterdamera, Hamburgora eta Kopenhagera joan ginen. Bost herrialde desberdin, eta gauza asko ikusi dugu, kotxean zoazela ezer ez baita ikusten". Zer ikusi, nora ailegatu, ze ordutan... ez zuten inolako planik. "Gure helmuga Kopenhage zela eta abuztuaren 25erako Bergaran egon behar genuela besterik ez genekien". Egunero, batanaz beste,

140 kilometro egin zituzten. "Kopenhagen bi egun, Amsterdamen beste bi eta Bruselan bat eta erdi egin ditugu, osterantzeko egun guztiak bizikleta gainean pasa genituen". Eguerdian patatak, bokadilloak... jaten zituzten, gauetan, berriz, arroza edo pasta. 9:30ak aldean lotara joaten ziren. "Edozein tokitan egin dugu lo, Amsterdametik Alemaniara joan ginenean 5 egun generaman kanpoan lo eginez".

Iñigo Orgaz, lau-pabost kilo galduta etorri den mutila, zen aurretik oporrak bizikletaz egiteke zegoen bakararra. "Ez da hain gogorra izan. Gorputza egin egiten da, eguraldiarekin suertea izan dugu eta jendea oso jatorra zen. Han bizikletaren kultura oso zabaldua dago -Bruselatik aurrera bizikletadunentzako karril berezietan ibili gara-, eta ikaragarria zen domeka goizetan ibiltzen zen jende mordoak ikustea. Zenbait tokitan aurreratze



"Trenean ez gara aspertu: lo egin dugu, kartetan egin, jendea ezagutu...". Edu, Aritz eta Mikel.

arazoak izaten ziren". Bidaia nahi duenak ez duela diru aitzakiarik diote. "Supermerkatuko merkeena erosiz gero, eguna 1.000 pezetarekin pasa daitekeela garbi dago. Garestiena bizikletaz egin ez dugun bidaia izan da, hau da, lehenengo Parisera joatea eta Kopenhagetik hona begazkinez etortzea. Zorrotz ibili ginen prezioak eta begiratzen, eta merkeena begazkina zen".

### Santiago-bidea bizikletaz

Jose Ignacio Garciak eta Juan Karlos Nietok ere Danimarka bizikletaz ezagutu zuten. Esperientzia gustatu, eta aurten ere bizikleta aukeratu dute Santiago-bidea egiteko.

Orreagatik irten, bidea egiten ari zirenentzako aterpetxeetan lo egin eta 12 egunen buruan Santiagora iritsi ziren. Aterpetxeetan oinezkoek zuten lehentasuna. Oherik ez bazegoen lurrean egin zitekeen lo: "guk bizikletaz beste kilometro batzuk egin, eta lekua zegoen beste batera joaten ginen. Herri txikietakako jendeak, batez ere zaharrek, egindako harrerak harritu ditu. "Obituta daudē urte guztian Santiago-bidea egiten ari den jendea ikusten, baina, hala ere, gainera etortzen zaizkizu hamaika galdera egitera".

Lehenengo erromes tipikorik ez dagoela diote: "historiara pasatu dira. Oinezkoak orain trekingeko botekin, goretex



Eurodisney ikusteko aukera izan dute Xamatzekoek eta Aritzetakook.

*jantziekin... ondo prestatuta joaten dira”.*

Hamaika leku ikusi, pasatzen ziren herri bakoitzean zigilua bota, eta azkenean, 850 km. egin ostean helmugara iritsi ziren. Santiagon latinez idatzitako agiria jaso, erromesen meza entzun, eta autobusez etxerantz abiatu ziren. Pena bat geratu zaie, argazkirik ez atera izana.

**Mexikon elkartasuna**

*“Txiapaseko egoera ezagutu nahi nuen”* dio Iñigo Igarzak. *“Mila bider nituen entzunda hango gauzak, eta elkartasuna adierazi nahi nien”.*

Komite Internazionalistekin joan da Iñigo Mexikora. *“Ez da bidaiatzeko modu alternatiboa, elkartasuna adieraztera joan naiz. Lehenengo Mexiko hiriburuan 3 egun egin genituen; handik Veracruz Estatura joan ginen: nekazari indigena talde batekin egon ginen; eta gero Txiapasen beste 15 egun egin genituen. Veracruz-en miseria bandiagoa ikusi dugu, nik ez nuen espero”.*

Hangoekin egon eta begirale lanak egin dituzte. *“Presentzia internazionala eskatu egiten dute, bestela ejerzittoa sartzen baita. Jendearen*

*presentzia eraman dugu: han eurekin egon eta berba egin dugu. Hasieran kosta egiten zitzaien berba egitea, baina gero ez zen arazorik izaten, asko gustatzen zaie berba egitea. Veracruzeko zenbait indigenak zuri-rik sekula ikusteke zuten eta gu ikustean beldurra izan zuten”.*

Mexikon ikusi duen errealitateak eta aurretik zuen ikuspegiak ez dutela zerikusirik dio Iñigok: *“mariatxia, tekila, hondartzak... errealitatearen zati txiki bat besterik ez da, ez da benetako errealitatea. Indigenak oso esplotatuta dute; eurek badakitenola antolatu*

*eta nola irten dauden egoeratik, baina arazoa da gobernuak trabak jar-tzen dizkiela”.*

**Txina desberdina da**

Teresa Aranzibia Txinan izan da Iñaki Aiastui, Marije Ugalde eta Valen Moñuxekin batera. Txina ekialdea ikusi dute: Pekin, Shangai eta Xian, besteak beste. *“Oso garai onean joan gara, hemendik oso urte gutxira okzidentalizatuta egongo dela baitiote. Txinarrak jazkeraz pixka bat okzidentalizatzen hasi dira, baina oraindik asko falta zaie. Ez daude atzerritarrak ikusten obituta, eta jendeak begiratu egiten zigun, umeez behatzez seinalatu ere bai. Guk agurtuz gero, denek erantzuten ziguten”.*

Teresari desberdina iruditu zaio Txina. *“Hana dena da desberdina. Asko gustatu zaizkit txinar lorategiak, parkeak, barresi handia, kanal handia... baina duda barik, gehien kalean ibiltzea eta txinar filosofia gustatu zaizkit. Espaloia etxeraren zati da eta han egiten dute bizitza: jan, telebista ikusi... dena. Beste patxada batekin bizi dira: etorkizuna zer den ez dakite, orainaldian bizi dira. Pobre bizi arren, konformidadeko jendea da, eta pozik bizi dira”.*

Komunikatzeko izan



Buda etzanda. Ezkerrean Valen Moñux, Marije Ugalde eta Teresa Aranzibia. Eskumakoa, Iñaki Aiastui.

**PINTXO eta BOKADILOAK  
SEKULAKO MARTXA!!**

**EUXEBIO II**

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

**MAHER**

**Biltegiak L.E.**

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29  
☎ 76 22 90 - 76 26 75

**OILAGORRA  
TABERNA**

Barrenkale, 21 BERGARA

dute zenbait arazo: "inglesez denda handietako eta hoteletako jendeak baino ez daki, osterantzekoekin keinu bidez moldatu behar zen, baina gure eta euren keinuak ez datoz bat. Behin kakahueteak nabi genituen, tximinoarena ere egin genuen, eta, azkenean, erosteke geratu behar izan genuen".

Teresa beti aldean erabiltzen duten te poteak ere harritu du: "dendariak, barresi handia ikusten ari zirenak... denek aldean eramaten dute". Sugerik ez dute jan, baina momentuoro norbait jaten ikusi dute: "badirudi ban ez dagoela hemen bezala jateko ordutegirik, beti dago norbait jaten".

**Europar  
interrailekin**

Aritz Beistegi, Mikel Arregi eta Edu Egurenak Errumania, Txekoslovakia eta Praga ikusteko gogoaz zuten. Bidaia txartela 45.000 pezeta baino gehiago kostako zitzaizela bazekitenez, prezio horretan Interraile txartela hartu, eta, trenez bidaia-tuz, 30 egunean ia Europa guztia ikusteko aukera ematen zien txartela erosi zuten. Hauxe da egin duten ibilbidea: Paris, Alemania, Praga, Bratislava, Budapest, Balaton, Errumania, Budapest, Zagreb eta Venezia. "Alemania



Aritzetakoek eta Xamatzekoek Europar eskaini duten emanaldia gure artean eskaintzeko asmoa dute.

laua iruditu zaigu; Eki-aldea pobrea, kotxeetan ezagun zen; Bucaresten Renault 12 eta gurdiak baino ez ziren ikusten; Kroazia mendia da; sorpresa Zagrebekin hartu genuen, izan ere, tiro hotzak besterik entzungo ez genituelakoan joan ginen, eta oso leku dotorea, garbia, polita eta aberatsa topatu genuen, dena terrazaz josita. Pragatik aurrera ur gasduna baino ez dago".

Mutilek Errumania ikusteko gogo bizia zuten, Drakularen istorioak bultzaturik. "Trenean jende askorekin bitzegen genuen, eta, behin, batek esan zigun Bra-

sson Drakula gartzelartuta egon zen gaztelua ikustera joateko. Joan ginen baina turistak erakartzeko engaino bat besterik ez zen".

Errumanian pasa dute denbora gehien, astebete. "Kontuz ibiltzeko esan ziguten bango jendea lapurra zela eta, baina oso jende jatorra eta zabala aurkitu dugu, beti laguntzeko prest. Errumaniar hainbeste mutilatu ikusteak harritu gaitu; eta tabernetan ez dago komunik". Ikusi duten zatarrena Vratislava da, "Ermuk 1.000 buelta ematen dizkio. Bidaiak egiteko gauak aprobetxatzen genituen, eta bide

batez, lo egiten genuen. Askotan lo hartu eta berriatik pasatu egiten ginen, oker bartu trenan...".

Dirua izan dute arazo. "Egun batean, esaterako, 400 pezeta genituen; berrialdetik hartatik egunean bertan alde egin behar genuenez, ez genuen txerkerik aldatu nabi izan. Errumaniatik irten behar genuenean, berriz, diru asko geratzen zitzaigun, eta, azkenean eskaleei ematen, pilak eta zintak erosten.... horrela ibili ginen". Venezian azken geldialdia egin, xoxik gabe geratu, eta hortik zehar 22 egun egin zituztenean, etxerantz abiatu ziren.

**iletxo**

ileapaindegi mistoa

**BEGOÑA ARZELUS**

Fleming Doktorea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

**BEHEKO  
TABERNA**

**Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**IKUSBI**

**ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK**

Irala, 5 ☎ 76 53 09

## Ahal izanez gero oporrak urteko beste sasoi batean hartuko zenituzke?



**Ursula Berrotaran**

Etxeko andrea naizenez ez daukat oporrik baina hartzekotan irailan hartuko nituzke.



**Fernando Moreno**

Oporrak hartzeko hilabeterik onenak uztailea eta iraila dira niretzat: giro hobea, jende gutxiago, merkeago... Baina abuztuan hartzera behartuta nago.



**Izaskun Larrañaga**

Uztailean edo orain hartzea onena, jende gutxiago dago eta... Nik abuztuan 15 egun eta orain beste 15 hartzen ditut. Baina nahiago nuke dena jarraian izatea.




**Anton Valverde**

Irailean, duda barik. Nik ez ditut orain hartzen baina hartuko nituzke gustora, abuztuan baino askoz lasaiago behintzat...



**Blanca Gonzalez**

Uztailean beharbada, hemen eguraldi ona egiten duelako, ez abuztuan bezala. Nik normalean abuztuan hartzen ditut, gizonari hala tokatzen zaiolako.



**Francisco Santiago**

Niretzat abuztuan baina uztailean edo irailan ere gustora hartuko nituzke. Nik tokatzen zaizkidanean hartu behar izaten ditut.



**MOISES ASPIAZU  
DANTZA TALDEA**

### *Fandangoa eta arin-arina*

4 urtetik gorako haurrentzat.  
Egunero, astelehenetik ostiralera.  
17:00etatik 18:00era.

**Hasiera:** Irailaren 30a.  
**Izen-ematea:** 76 15 40 telefonoan.  
21:00etatik 22:00era.

# DANTZA IKASTAROA





## "Plaza de España"

"Beheko plaza" esaten diogu bergararrok goizetan Uda-letxeak eta arratsaldetan Seminarioak eguzkitik babestutako zabalune maite bezain begiko dugunari.

Orain "Beheko plaza"tik behera ere baditugu plazak, baina hauek modernoak dira, eta "plaza" barik, "enparantza" eginda dauzkagu.

Azkeneko honetan baina, "Kilometro Mapfre" deritzan al-dizkariaren begi luzeak ere erne ibili dira, eta apainduta ikusi ondoren, polita iritzi diote gure "Beheko plaza"ri, hain polita, ezen, erretratua egin diote, eta "Plaza de España" dela abisatu digute.

Erretratisten lanak Bergararen kategoria turistiko orain arte ezaguna, mundu zabalean zehar eramateko balioko duela pentsatzen duenen bat ere izango da, seguruenik; nik ez diot ezetzik esango.

Beste kontutxo batek kezkatzen nau ni, solamente; hona hemen nere kezken iturburua: erretratista arrutentzat hain pottolo dagoen "Plaza de España" berritu hau Atutxaren argazki eta bideomakinentzat ere ikusgarria eta "fotogenikoa" gertatzen ote da?

Eta makina horiek gertu ote daude, jadanik, plazak biltzen dituen "arteak", eta batez ere "turistak" iruditan jasotzeko?

**Markos BALENTZIAGA**



## Joan-etorria

Toki desberdinak baina arazo berbera, kapital bakarrak sortutakoa. Arrazoi bakarrak eragindako ondorio desberdinak. Uda honetan Europak inmigrañteei ematen dien tratua adibide ugari ikusi ahal izan dugu. Etsaia bailituen begiratzen dio Europak Hegoari eta gotorleku bihurtu nahi izan du bere (indartsu izan nahi duen potentzia berri horren) interesak babestu nahirik.

Hirugarren Mundua deitutakotik datozen etorkin uholdeek sor dezakete nolabaiteko beldurra (arrazoirik gabea, egia esanda) edo kontrako erreakzioa, kontuan izanda geure inguruan bertan ere gizarte-egoerak okerrera egin duela. Baina kezkarriena arazoa konpontzeko Europak hartu duen bidea da: kolpetik konpondu nahi izatea, arazoa bere sustraian konpontzeko asmorik azaldu gabe. Inon ez da "justizia" hitza aipatzen. Etorkinon sortarrietako gosea eta pobrezia orain hartu nahi ez dituzten nazioek bultzatutako politiken ondorio dira.

Azken hamarkadetan munduan zeuden gizarte-injustiziak areagotu baino ez dira egin. Herri aberats eta pobreen arteko aldeak bikoiztu egin dira. Kanpo zorrak Hirugarren Munduaren garapen-esperantzak itota dauzka eta Mendebaldeak da ordainketa-baldintzen bitartez legea ezartzen duena.

Gosearen zergatia ez da janaririk eza, baizik eta gose direnek jana lortzeko aukerarik ez izatea. Ondorioak nolabait "goxatu" nahiz "garapenerako laguntzak" ematen dituzten erakundeak berak dira beren politikarekin bai estatu eta bai nazioarte mailan injustizia horiek sortzea eta irautea bultzatzen dutenak. Era berean, egoeraren zergatiak ez baizik eta ondorioak konpondu nahi dituen edozein elkatasun ahalegin, kontestu globalak itoko du eta oraingo garapen ereduarekin jarraitzeko baino ez du balioko.

**Jesus Mari KALBOETXEAGA**

# ONENA

## TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

# MUJIKA

## Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA



  
**LASA**  
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxes: 76 20 29



**DEBA  
GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 beheka ☎ 76 21 80-76 06 37

■ **Calcutako Ama Teresarekin**

Argazkian agertzen diren bergararrek **Calcutako Ama Teresa** gertutik ezagutzeko aukera izan zuten abuztuan. **India** eta **Nepalera** egindako bidaian, **Calcutan**, sobran zituzten medikamentuak bertan lagatzeko aukera eskaini zieten eta bidaiaiko partaideak Ama Teresak **Calcutan** duen Ospitalera hurbildu ziren. Normalean Ama Teresa ez da bisitariekin



elkartzen (86 urte egin berri ditu) baina egun horretan hemendik joandako lagunek pobreen aldeko hain lan aipagarria egin duen Ama Teresa ezagutzeko zortea izan zuten. **Bake Nobel Sariak** Ospitalean egiten den lana azaldu eta euren laguntza eskertu zien turistei. **Luis Mari Sotoren** argazkian, **Yolanda Lopez** bere emaztea eta **Iñaki Etxarri** eta **Cristina Gonzalez** senar-emazte bergararrak.



■ **Bisitariak informatzeko panel interaktiboa**

Frontoian, Ibargarai ibilbidean jarri den panel turistiko informatikoak ez du erantzun onik jaso antza denez. Mankomunitateko hainbat udalek **Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin** sinatutako hitzarmenari esker, panel interaktiboa Udal Pilotalekuaren larrialdietarako irteeraren ondoan jartzea erabaki da baina dirudienez ez du ondo funtzionatzen eta udaleko ordezkariak panela

konpontzeko eskatuko diote Mankomunitateari. Orain behintzat ez dago seinalizatua eta eguzkiak jotzen duenean ere ez da batere ikusten. Urte osoan zehar panela bertan edukitzeko asmoa dago, bisitariak Bergara eta inguruko herriei buruzko informazioa jasotzeko aukera izan dezaten.

*Paper pintatuak - Pinturak*

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE

Industria hornikuntzak **U** Industriaren alde  
UNIFE

**MEMESA S.L.**

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxes: 76 47 89  
Santa Cruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxes: 77 13 08

**ZUBIETA**  
*elektragintza*

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

**Kruz Gallastegi, 2 behea**  
☎ 76 23 48

■ Antzuolarrak indartsuen

Larunbat arratsaldean, **Osintxuko Kofraixetan**, Antzuola, Osintxu eta Bergarako taldeek herri kirolen desafioa izan zuten. Osintxuko frontoian jende dexente bildu zen kirol probak jarraitzeko eta hiru taldeetako gazteek maila altua erakutsi zuten. Harrijasotzea, txingak, kaskara batzea, saku karrera eta upelaren proba jokatu ondoren, hiru taldeak berdinduta iritsi ziren azken probara, soka-tirara, eta honetan Antzuolako taldeak lortu zuen garaipena. Beraz antzuolarrak izan genituen olinpiada hauetako irabazleak. Jarraian bergararrak sailkatu ziren eta hirugarren tokian, berriz, osintxuarrak. Badirudi hurrengo desafioak Bergaran eta



Antzuolan jokatuko direla, oraindik fetxarik zehaztu ez den arren. Bien bitartean gorputza zaindu eta gogor entrenatu behar...

**Zertan dihardute ba?**



**Alex Labaien**

31 urteko bergararra dugu Udal Euskaltegiko zuzendari berria astelehenetik. Alex Labaienek azken urteetan Euskaltegiko zuzendaritzan izan den Maria Dolores Lete ordezkaturako du datozen hiru urteetan. Alex Labaienek Majisteritza ikasketak burutu zituen Eskoriatzako Irakasle Eskolan eta zazpi urte eman ditu Bergarako Udal Euskaltegian lanean. Berrigarako Erredakzioko kontseiluko kidea da eta zuzenketa lanak ere egiten ditu Berrigaran. Gaur egun 6 irakasle ari dira lanean Udal Euskaltegian.



**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**gizon emakume**  
**Barrenkale, 35 BERGARA**

**CAMACHO**  
**Drogeria Usaindegia**  
**Bidekurutzeta, 24 BERGARA**  
**☎ 76 13 35**

# Olaia Inza

**Administrarritza eta Kanpo merkataritza ikasketak egin ostean liburutegian dabil lanean Olaia. Uztailean opor egun batzuk hartu, eta abuztuan lan egin du; urrian beste astebete izango du jai.**

- **Ametsetako oporrak non?**
- Isla paradisiako bakarti batean.
- **Norekin?**
- Ondo konpontzen naizen edozeinekin.
- **Nora ez zinateke joango?**
- Turismo gehiegi dagoen leku masifikatu batera.
- **Zein plan ez zaizu gustatzen?**
- Bidaia antolatuak, aurretik prestatu eta nire kontura bidaiatzea gustatzen zait.
- **Oporretan gorrotatzen duzuna?**
- Presaka ibiltzea, urtean nahikoa presaka ibiltzen gara eta.
- **Gehien maite duzuna?**
- Bergaratik irtetzea eta lasaitasuna.
- **Abuztuan Bergara nolakoa da?**
- Tristeia. Jendea geratzen da, baina girorik ez da egoten.
- **Udako kantua?**
- Gozategiren musutxue, Macarena, Solo se vive una vez... ez dakit.
- **Irakurtzeke laga duzun liburua?**



*"Abuztuan Bergara tristeia da, jendea geratzen da baina ez da girorik izaten; lainoak eta euria besterik ez dut ikusi abuztuan. Oporretarako ez zaizkit bidaia antolatuak gustatzen, ezta presaka ibiltzea ere"*

- Garcia Marquezen Cien años de soledad.

- **Udan zer da gehien ikusi duzuna?**

- Lainoak eta euria.

- **Nolako argazkiak ateratzen dituzu?**

- Paisaiak gustatzen zaizkit, nire politena Kakoetako arroilean ateratakoa da.

- **Bideokamararik erabiltzen?**

- Ez dut sekula erabili, argazkia gehiago gustatzen zait.

- **Bizikletak udarako dira?**

- Edozein sasoitarako, baina antxintxika, igerian edo gimnasioan gehiago ibiltzen naiz.

- **Ilean kolorea ala permanentea?**

- Ez dut asko aldatzen, baina kolorea ematea nahiago dut.

- **Minigonak gustatzen zaizkizu?**

- Beste batzuek erabiltzeko, nik sekula ez dut jantzi.

- **Txintxin egitean zer esaten duzu?**

- Uste dut bakarrik Gabonetan egiten dudala.

- **Zuhaitz bat?**

- Lorak gehiago gustatzen zaizkit, kontu asko esaten dizkiet.

- **Etxean animaliarik bai?**

- Txakurrak gustatzen zaizkit, baina pisu bat ez da txakurrarentzako bizilekua.

- **Arratoiek higuinik ematen?**

- Xaguek eta arratoiek; ikusten ditudanean edozein tokitara igotzen naiz, salto egiten dut...



ESKORIATZAKO  
MAGISTERIO ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

**1996-97 ikasturterako aurreinskripzio-epa zabalik dagoela.**

Espezialitateak:

- HAUR HEZKUNTZA
- HEZKUNTZA BEREZIA
- ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA. ☎ (943) 71 41 57. ESKORIATZA.

**POL-POL**

Taberna

☎ 76 07 78



**ETXEBIZITZA**

**Garaje** bat salgai Burdiñaten. ☎ 76 38 06.

**Iruñean** pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 17 14 (gauzez).

**Ganbara** salgai San Pedro kalean. ☎ 76 24 05.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 43 22.

**Garajea** salgai Boni Las-kurainen. ☎ 76 47 67.

**Pisua** salgai Bolun. 100 metro karratu. ☎ 76 22 72.

**Pisu** bat konpartitu nahi dut. ☎ 76 08 00 (Ismael).

**Estudioa** alokatzen dut Benidormen. ☎ 76 23 43.

**Etxebizitza** salgai Koldo Eleizalden. Garajea eta ganbararekin. ☎ 76 54 66.

**Pisua** alokairuan San Antonion. Egoera onean. ☎ 76 21 39.

**Errioxako** Benimar kanpinean modulo bat salgai. Urte amaierara arte ordainduta. ☎ 76 16 49.

**Osintxun** buhardilla bat salgai. ☎ 76 15 36.

**Pisua** salgai herri erdian. ☎ 76 19 29.

**Pisua** salgai edo alokairuan Barrenkalean. ☎ 78 70 30.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 50 67 (Xabi).

**DENETARIK**

**Olivetti** fotokopiadora salgai. ☎ 76 51 23 (gauzez).

**Trialsineko** Monty bizikleta salgai. ☎ 76 56 13.

**Hiru** gelako kanpina erosi-ko nuke. ☎ 76 41 28.

**Zaldi** bat konpartitu nahi duzu? ☎ 76 30 01 (Rene).

**Imar** denda-remolkea salgai. ☎ 76 58 62 (gauzez).

**Ford Fiesta** kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 33 26.

**Haginetako** aparatu bat agertu da Urrtas tabernan. ☎ 76 52 92.

**Erretzeko pipa** bat galdu dut. Balio sentimentala. ☎ 76 58 37.

**Ohe** artikulatu automatiko berria salgai. ☎ 76 37 24.

**Imar** karro-denda salgai. ☎ 76 59 56 (gauzez).

**Mendiko bizikleta** salgai. ☎ 76 51 55.

**Taxi** plaza eskualdatuko nuke. ☎ 76 07 31.

**Seat 124** kotxea (SS-N) salgai. ☎ 76 40 94.

**Sango** denda-remolkea salgai. ☎ 76 33 92.

**Ford Sierra** kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

**LANA**

**Ingeniaritza** ikasleak klaseak ematen ditu. ☎ 76 11 11.

**Mate** eta fisika klaseak ematen ditut. ☎ 76 47 85.

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 04 65.

**OHO**, aleman eta italiano klaseak ematen ditut. ☎ 76 12 38 (Irene).

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 06 56 (Irene).

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**Etxeko** lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 24 42 (Amaia).

**Aleman** diplomatuak klaseak ematen ditu. ☎ 76 12 77 (Maite).


**Emakume** euskalduna behar da haur bat zaintzeko. ☎ 76 02 59.

**Etxeko** lanak egin eta haur bat zaintzeko neska euskalduna behar da. ☎ 76 06 69.

**Neska** batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo litzuzke. ☎ 76 13 46.

**Kimikako** 5. mailan ari den ikasle batek lan egingo luke. ☎ 76 20 04.

**Emakume** euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 30 20.

**ARREGUI, E.M.****AROSZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73


Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**FRANTSSES  
IRAKASKUNTZA**

Mizpildi 3, 1. ezkerre, BERGARA.

**96-97****ikasturtea****IZEN-EMATEA:****Irailaren 30era arte.****INFORMAZIO GEHIAGO:****76 30 55 telefonoan.****ORDUTEGIA:****10:00-12:00 eta 17:00-19:00**

# BONOFOTOA



M. A. ELKORBEZIBAR



## Ion De Pedro

**Ion De Pedro** irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galderak berak asmatu dituelako eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen kalearen izena eta bertakoek jaiak noiz ospatzen dituzten galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Aranerreka kalea eta uztailaren 26an, Santa Ana egunean**, zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Ion De Pedro**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

**Non aurkitu ditzakegu Bergaran Ama Birjinaren irudi hau (ezkerreko argazkia) eta San Martinena (eskumakoa)?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara

# Txinako mendietan

## Iker Etxeberria eta Roman Laskurain Muztag Atatik bueltan

**Roman Laskurain eta Iker Etxeberria Txinan izan dira abuztuaren Muztag Ata (7.540m) mendia igotzeko asmoarekin. Bi saiakera egin arren, haizeagatik ezin izan dute gailurrera heldu.**

Etxeberria eta Laskurain abentura uztailearen 29an hasi zen. Ingaltarratik pasa ondoren Pakistaneko hiriburuan, Islamabaden, laga zituen hegazkinak. Hortik Rawal Pindi herrira joan ziren eta 3 egun egin zituzten. Bertan, italiar talde batekin elkartu ziren eta elkarrekin, autobusez "Zetaren Ibilbidea" jarraituz 3 eguneko bidai luzean Muztag Ataren oinarriko kanpamendura heldu ziren abuztuaren 7an.

Lehenengo egunean atsedena hartu zuten eta hurrengo egunean mendirako bideari ekin zioten. Lehenengo kanpamendua 5.600 metrora jarri zuten eta berriz oinarriko kanpamendura itzuli ziren.

Eguraldiaren laguntzarekin 2. kanpamendua 6.400 metrora jarri zuten eta bertan pasatu zuten gaua. "Bi planteamenduz zeuden: batzuk denda jarri eta jeistea erabaki zuten eta guk, italiar talde batekin eta bertan ezagutu genuen Burgo-seko batekin batera, 2. kanpamenduan lo egitea erabaki genuen, hortik gailurrera igotzeko asmoa baikenuen" esan digu Etxeberriak.

### Eguraldiak txarrera

Hori guztia abuztuaren 14ean gertatu zen eta egun horretan eguraldi bikaina zuten arren, hurrengo egunerako gauzak zeharo aldatu ziren. Haizea hasi zen eta lehenengo kanpamendura jeitsi behar izan zuten eta hortik haizeagatik oinarriko kanpamendura joan behar izan zuten. "Esan zigutenez han normalean haizeak 5 edo 6 orduz jotzen du, baina 8 egunez izan genuen haizea. Lehenengo eta 2. kanpamenduetan 5 denda apurtu zituen haizeak eta oinarriko

kanpamenduan kreamailerak eta, apurtu zituen" dio Laskurainek.

Aspertzeko denbora izan zuten eta 4 egun pasa ondoren, berriz ere gailurrera igotzea erabaki zuten. Halere, igotzen hasi aurretik esperientzia txarra izan zuten japoniar batzurekin. "Igotzen hasi baino lehen gailurretik jeitsi ziren japoniar batzurekin elkartu ginen eta bakoitzak 10 bebatz galdu zituela esan ziguten. Halere, goruntz egin genuen eta 2. kanpamendura heldu ginen. Han geundela, mundu guztia eguraldi txarra-gatik jeisten hasi zen eta

gu ere beberantz joan ginen haizeagatik" esan digu Etxeberriak.

Abuztuaren 23an, 6.400 metroan bi gau pasa ondoren, oinarriko kanpamendura heldu ziren. Dena den esperientzia positiboa izan dela esan digute eta gailurreraino igo ez arren merezi izan duela: "Muztag Ataren zatirik nekezena egin genuen, 2. kanpamendutik aurrera trabe-siako eskiekin igotzeko asmoa baikenuen. Mendian, dena pikutara bidaltzeko gogoia izaten duzu, baina orain berriz mendira joateko gogoia daukagu".


**"Mendian zaudenean dena pikutara bidaltzeko gogoia izaten da, baina orain berriz ere mendira joateko gogoia daukagu"**



Muztag Atako 2. kanpamenduan 6.400 metrotara.

## Futbito Txapelketa hil bukaeran hasiko da

Hilaren 28an emango zaio hasiera Labegarrietako Futbito Txapelketari. Iaz bezala, aurten ere lau maila izango dira eta bakoitzean 12 talde arituko dira lehian, 4. mailan izan ezik, azken hau 15 taldek osatuko baitute. Izena emateko azken eguna hilaren 18a, asteazkena, da. Kiroldegian eta Kultur Etxean eman ahal izango da izena eta taldearen izena, jokalarien zerrenda, kamisetaren kolorea, taldeko ordezkariaren izena, telefonoa eta nortasun agiriaren fotokopia eta 17.000 pezeta entregatu beharko dira. Irailaren 18an, arratsaldeko 7etan bilera egingo da Kultur Etxean taldeetako ordezkarien artean.



Kiroldegiko kanpoaldeko jolastokian zorua konpondu berri da



"Bergara Hiria" Nazioarteko Xake Opena datorren asteburuan.

## Xake Opena San Martinetan

Bergarako xake taldeak antolatuta "Bergara Hiria" Nazioarteko Xake Opena jokatuko da datorren astebukaeran. Txapelketa suizar sistema erabiliz 7 txandatar jokatuko da eta larunbatean goizeko 10:00etan, lehenengo txanda hasiko da Udal Pilotalekuan. Domekan txapelketa ordu berean hasiko da eta sari banaketa 19:00etan izango da. Izena emateko epea igandean, irailak 8, bukatzen da eta 2.000 pezeta ordaindu behar dira. Izen ematea 76 20 31 telefonora deituz eta Edurnegatik galdetuz egin behar da. Txapelketan 12 sari banatuko dituzte. Lehen saria 100.000 pezetakoa izango da eta sari txikiena, berriz, 4.000 pezetakoa.

## Kurtso berrirako kirol eskaintza

Udaleko Kirol Zerbitzuak 1996-97 denboraldirako kirol eskaintza kaleratu du. Horrela, bada, 15 urtetik gorakoentzat mantenimendu gimnasia, aerobika, tenisa eta elabarrituentzako iharduera fisiko egokitua egiteko aukera izango da. Halaber, igeri ikastaroen eskaintza ere kaleratu dute. Ikastaroen ordutegia, egun kopurua eta prezioak jakiteko Kirol Zerbitzuko bulegoetara jo beharko da.

Bestalde, Agorrosingo igerilekuek 25 urte betetzen dituztela ospatzeko astelehenean 11:00etatik 17:00etara hainbat joku izango dira kanpoko igerilekuetan. Ekitaldietara bergarar guztiak daude gonbidaturik, Kirol Zerbitzuko bazkideak ez izan arren. Azkenik, kanpoko igerilekuak arratsaldeko 8etan itxiko dira.



Beste batzuen artean, aerobika egin ahal izango da.

**Usoa Pub**  
  
 ☎ 76 38 57  
 Irala, 1

**Maxim's**  
 ☎ 76 20 61

**GURIA**  
**Taberna**  
 Bidekurutzeta, 5  
 ☎ 76 20 34



## T XINPARTAK

### Bergara-Mutriku

BKEko futbol talde nagusiak igandean 17:00etan hasiko du denboraldia, Agorrosinen Mutrikuren aurka jokatu duen partiduarekin. Goio Arrietak zuzentzen duen taldeak itxura ona erakutsi du Bergara Hiria txapelketan, finalean Arrasateren kontra penalti jaurtiketetan galdu arren.

### San Martin Herri Krossa

Irailaren 14an, zapatua, 17:00etan jokatu da San Martin Herri Krossa. Hiru maila bereiztuko dira: 14 urtetik beherakoak, 14 urtetik 18ra artekoak eta 18tik gorakoak. Izen-ematea San Martin plazan 16:30ak arte egin ahal izango da. 58.000 pezeta banatuko dira saritan eta, horrez gain, kamiseta bana emango zaie lehenengo 50 sailkatuei.

### Arloteak txapeldun

Arloteak/Oilagorrek irabazi zuen Ipintzako adin mugarik gabeko txapelketa. Uztail amaieran jokatu zen finalean Arloteak 3 eta 0 nagusitu zen Amilotxen kontra. Emakumezkoen futbito txapelketa, bestalde, Power Rangers taldeak irabazi zuen Guk Geuk taldeari 3 eta 1 irabazi ondoren.

# Agurtzane Lete

## Arrasatera futbolearen egitera

**Agurtzane Letek 3 urte daramatza futbolearen jokatzen eta iaz Bergararekin denboraldi bikaina egin ondoren, 3. mailara igo berri duen Arrasaterekin jokatu du datorren denboraldian. Bihar, larunbata, adiskidantza partidua jokatu du Bergararen aurka. Agurtzane Leterentzat oraindik Bergara da bere taldea.**

**- Arrasatera joatea urrats handia izan da?**

- Bai, jendea bistaz bakarrik ezagutzen dut eta maila ere altuagoa da. Maila honetan Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako taldeek jokatzen dute eta serioagoa izango da.

**- Orain arte egin dituzuen entrenamenduetan zela ikusi duzue zure burua?**

- Taldekideekin oso ondo, baina entrenamenduak eta partiduak oso desberdinak dira. Bergaran taktikoki askatasun handiagoa genuen. Arrasaten entrenatzaileak esaten duena egin behar dugu. Baloia errekuatu behar dugunean modu batera jokatu behar dugu eta baloia daukagunean beste era batera. Jokatu nituen lehenengo 10 minutuetan ez nuen baloirik ikutu, baina denborarekin ikasten da.

**- Orain taktikari garrantzia gehiago ematen zaio?**

- Arrasaten gehiago lantzen da, agian Bergaran horretarako astirik ez daukagu eta. Bergaran futbol zelaia astean behin

bakarrik genuen eta horrela ezin da landu ondo. Arrasaten egunero daukagu futbol zelaia eta hori igartzen da.

**- Noiz hasiko duzue liga?**

- Datorren astean. Halere, bihar Bergararen aurka jokatu dugu. Arrasaterekin jokatu arren, Bergara niretzat lehenengo taldea izango da beti.

**- Nesken futbola ze egoeratan dago Bergaran?**

- Ondo dago, baina jokatzeke baldintzak ez dira oso egokiak. BKE duela 3 urte hasi ginenean

astean egun bat lagatzen ziguten futbol zelaia azkenak sartu ginelako. Denbora pasatu da eta berdin jarraitzen du. Nesken artean afizio handia dago, baina oraindik laguntza gutxi ematen zaio.

**- Futbolearen zer gus-tatuko litzaizuke lortzea?**

- Gustora ibiltzea. Garbi dago hortik ez naizela biziko eta.

**- Futbola telebistatik?**

- Gustatzen zait, baina batzuetan partidu larregi botatzen dituzte eta gainera partidu gehienak mutilenak dira.



Hego Euskal Herriko taldeen aurka jokatu du Arrasaterekin.

## "Arrasaten jokatu arren, beti izango naiz Bergarakoa"



Argazkia:  
Fernando Arenaza

## Frax Fidelekin Seminarioan

**L**aister ikasleak eskolara bueltatu beharko direnez, eskola giroa pizten joateko, Seminarioko ikasle talde baten erretratua ekarri dugu aste honetan orrialde honetara. Argazkia 1959-60 urte ingurukoa da eta bertan agertzen diren mutikoez 8-10 urte izango zituzten orduan. Argazkia Seminarioko patioan bertan aterata dago eta, Fray Fidelen begiradapean, mutikoez zintzo-zintzo jarri ziren argazkilariaren aurrean. Beraien atzean Seminarioko edifizioa ikus daiteke.

Ordutik aldaketa ugari jasan ditu inguru horrek, izan ere ia 40 urte pasa dira erretratua atera zenetik. Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

**Goian:** Cirilo Sasiain, Luis Mari Gallastegi, Fray Fidel eta Lezama.

**Hurrengo ilaran:** Fernando Arenaza, Arturo Santamaria, Lorentzo Uribesalgo, ezezaguna, Xabier Larrañaga, Roberto Toledo, Manolo Manzano, ezezaguna, J.M. Garate eta Xabier Sotil.

**Aurrerago:** J. Roke Irizar, Luis Mari Sotil eta Ramon Oyarzabal.

**Eserita:** Ugarteburu, Moises Pildain, J. Jose Egibar, J.A. Garitano, Jose ramon Gisasola, Ugalde eta ezezaguna.



*Mikel Gastelurrutia*  
PIANO ETA SOLFEO KLASEAK  
(Goi mailako titulaziodun maisua)



☎ 76 50 59

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21



**umelaga**  
JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!**



## **VENTANAS SAN MIGUEL**

*Ventanas San Miguelekin...  
denean irabaziko duzu.*


*Erosotasunean irabaziko duzu.*

*Aurrezpenean eta energian  
irabaziko duzu.*

*Isolamenduan irabaziko duzu.*

*Konfortean irabaziko duzu.*

**Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21**



*Etonki gurena!  
Denean irabaziko duzu.*




# **ARRAÑAGA**

**A U T O E S K O L A**

**Artekale, 22 ☎ 76 16 63  
BERGARA**

**Santa Ana ☎ 74 10 11  
ELGOIBAR**

Euskaldunak  
izan nahi  
dugulako  
**EUSKAL HERRIA**  
**EUSKALTEGI**  
**BIHURTU DUGU!!**



EUSKARA IKASTAROAK  
Maila guztiak, EGA eta ALFABETATZE  
Gurasoentzat klase bereziak

Matrikula epea:  
IRAILAren 27ra arte

Informazioa eta matrikula:  
AKULU-AEK EUSKALTEGIA  
Masterreka, 13 behea  
Tfnoa: 76 05 18

**æk**